# 3. AGIRIA

## BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA

BETELURIKO EUT-A ETA GALINDOKO ARAZTEGIKO SANEAMENDU-LABORATEGIKO UR ULTRA PURUA ARAZTEKO EKIPOEN MANTENTZE LANA EGITEKO ZERBITZUAREN LIZITAZIOA, PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ.

## 1. *XEDEA*

Lizitazio honen xedea da Beteluriko EUTko hornidura-laborategian eta Galindoko HUAko saneamendu-laborategian dauden **ur ultra purua arazteko ekipoen mantentze-lana** egiteko zerbitzua kontratatzea. Zerbitzu horrek Merck Life Science enpresak gauzatuko du, eta mantentze-lanak egiteko eta ekipoen funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoa den material suntsikor guztia hartuko du barne.

## 2. *SISTEMAREN DESKRIBAPENA ETA BETEKIZUN OROKORRAK*

- 1. lotea Beteluriko EUTko hornidura-laborategia

Merck Life Science markako ur ultra purua arazteko hiru ekipo dira, taula honetan zehazten direnak:

| Tresna | Tresna-eredua | Deskribapena | Kopurua |
|---|---|---|---|
| 1 | ZRXV015T0 F1PA36566E | Elix Advantage 15 ekipoaren mantentze-lanak. | 1 |
| 2 | ZRXV005T0 F1SA50049C | Elix Advantage 5 ekipoaren mantentze-lanak. | 1 |
| 3 | ZRXQ003T0 F2AA53169E | Milli-Q Integral 3 ekipoaren mantentze-lanak. | 1 |

Hiru ekipo horien mantentze-lanaz gain, beharrezkoa da ekipo horiei lotutako hiru biltegiak desinfektatzea.

- 2. lotea - Galindoko HUAko saneamendu-laborategia

Merck Life Science markako_ur ultra purua arazteko ekipoa da, taula honetan zehazten dena:

| Tresna | Tresna-eredua | Deskribapena | Kopurua |
|---|---|---|---|
| 1 | F2JA29985C | Elix Advantage 5 | 1 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | ekipoaren mantentze-lanak. | |

Ekipo horren mantentze-lanaz gain, horri lotutako bi biltegiak desinfektatu behar dira.

## *3. KONTRATATUTAKO ZERBITZUAK*

Mantentze-lanak egiteko zerbitzua babes osokoa izango da, osmosi-mintzetarako estaldura duen MILLI-Q Service Total™ planarekin. Aurreko tauletan zehaztutako lau ekipoetan egingo da, hiru hornidura-laborategian eta bat saneamendu-laborategian.

Ekipoen prebentziozko mantentze-lanak egingo dira, hau da, ekipoen arazoei eta funtzionamendu txarrari aurrea hartzen laguntzen duten zeregin guztiak. Zehazki, zeregin horietan barne hartuko da mantentze-lanen urteko bisita, non enpresa lizitatzaileko zerbitzu teknikoko ingeniari ziurtatuek ordezko originalak erabiliko baitituzte.

Erabilitako ordezkoek fabrikatzaileak igorritako hurrengoak izango dituzte: adostasun- eta kalibrazio-ziurtagiriak eta erabilitako elementuen segurtasun-orriak eta ezaugarriak.

Ekipoak funtzionamendu-egoera egokian kontserbatzeko eta biltegiak desinfektatzeko beharrezkoak diren mantentze-errutinak egingo dira mantentze-lanen berrikuspenean.

Esku-hartze guztiak (prebentziozko mantentze-lanekoak zein mantentze-lan zuzentzailekoak) ekipoa dagoen lekuan egingo dira, hau da, Beteluriko EUTn dagoen hornidura-laborategian edo Galindoko HUAn dagoen saneamendu-laborategian.

Mantentze-lanen planaren MILLI-Q Service Total™ modalitatean, matxuratuta dauden eta ordeztu behar diren pieza guztien zenbatekoak sartu dira, bai eta bidezkoak diren joan-etorriei eta eskulanari dagozkionak ere. Ekipoetan matxurarik gertatuz gero, arazoak konpontzeko bisita-kopuru mugagabea egiteko eskatuko da. Era berean, matxurarik gertatuz gero, teknikari bat gure instalazioetara etorri aurretik, teknikari bat egon beharko da eskuragarri astelehenetik ostiralera larrialdietarako telefono-linea batean, egon daitezkeen arazoak konpontzen laguntzeko.

Egindako berrikuspen guztiei buruzko txostenak egingo dira, bai mantentze-lanei buruzkoak, bai konponketei buruzkoak, eta trazatu ahal izango dira.

## *4. MANTENTZE-LAN PREBENTIBOAN SARTZEKO MATERIAL SUNTSIKORREN ETA ERREFERENTZIEN XEHETASUNA.*

Mantentze-lan prebentiboko eragiketetan, taula hauetan zehazten diren elementu batzuk ordeztuko dira:

- 1. lotea Beteluriko EUTko hornidura-laborategia

Elix Advantage 15 ekipoaren URTEKO mantentze-lan prebentiborako:

| Erreferentzia | Deskribapena | Kopurua |
|---|---|---|
| MPGP04001 | MPGP04001 Millipak® Express 40 Filter (1/box) | 2 |
| PR0G0T0S2 | PR0G0T0S2 PROGARD TS2 | 3 |
| ZLXUVLP01 | ZLXUVLP01 UV LAMP FOR ELIX UV | 0,5 |
| TANKMPK01 | TANKMPK01 PE TANK MILLIPAK FILTER | 3 |

Elix Advantage 5 ekipoaren URTEKO mantentze-lan prebentiborako:

| Erreferentzia | Deskribapena | Kopurua |
|---|---|---|
| MPGP04001 | MPGP04001 Millipak® Express 40 Filter (1/box) | 3 |
| PR0G0T0S2 | PR0G0T0S2 PROGARD TS2 | 3 |
| ZLXUVLP01 | ZLXUVLP01 UV LAMP FOR ELIX UV | 0,5 |
| TANKMPK01 | TANKMPK01 PE TANK MILLIPAK FILTER | 3 |

Milli-Q Integral 3 ekipoaren URTEKO mantentze-lan prebentiborako:

| Erreferentzia | Deskribapena | Kopurua |
|---|---|---|
| QTUM0TEX1 | QTUM0TEX1 QUANTUM TEX CARTRIDGE (1/PK) | 1 |
| MPGP04001 | MPGP04001 Millipak® Express 40 Filter (1/box) | 2 |
| PR0G0T0S2 | PR0G0T0S2 PROGARD TS2 | 3 |
| ZMQUVLP01 | ZMQUVLP01 UV LAMP FOR MQ CENTURY | 0,5 |
| ZFA10UVM1 | ZFA10UVM1 A10 UV LAMP | 1 |
| ZLXUVLP01 | ZLXUVLP01 UV LAMP FOR ELIX UV | 0,5 |
| TANKMPK01 | TANKMPK01 PE TANK MILLIPAK FILTER | 3 |
| QTUM00ICP | QTUM00ICP QUANTUM ICP (1/PK) | 1 |
| MPPVICPK1 | MPPVICPK1 Optimizer 0.1µm Filter (1/box) | 1 |
| V0CPAK001 | V0CPAK001 VOC PAK (1/PK) | 1 |

- 2. lotea - Galindoko HUAko saneamendu-laborategia

Milli-Q Integral 5 ekipoaren URTEKO mantentze-lan prebentiborako:

| Erreferentzia | Deskribapena | Kopurua |
|---|---|---|
| QTUM0TEX1 | QTUM0TEX1 QUANTUM TEX CARTRIDGE (1/PK) | 1 |
| MPGP04001 | MPGP04001 Millipak® Express 40 Filter (1/box) | 3 |
| PR0G0T0S2 | PR0G0T0S2 PROGARD TS2 | 3 |
| ZMQUVLP01 | ZMQUVLP01 UV LAMP FOR MQ CENTURY | 0,5 |
| ZFA10UVM1 | ZFA10UVM1 A10 UV LAMP | 1 |
| ZLXUVLP01 | ZLXUVLP01 UV LAMP FOR ELIX UV | 0,5 |
| TANKMPK01 | TANKMPK01 PE TANK MILLIPAK FILTER | 3 |
| ZLXUVLPL1 | ZLXUVLPL1 UV LAMP FOR TANKASM/RIOS/ELIX-L | 0,5 |
| ZFRES00UV | ZFRES00UV ASM UV LAMP W/CABLE | 1 |

## *5. FUNTZIONAMENDU-PROZEDURA*

Ekipoen mantentze-lanetarako, enpresa lizitatzaileak laborategiari adieraziko dio zein den mantentze-lanak egiteko aurreikusten den egunik egokiena, eta BBUPko teknikariekin koordinatuko da bisita adosteko.

Kontratu honen mantentze-lanak egiteko behar den material suntsikor guztia behar besteko aurrerapenarekin bidali beharko da laborategietara, berrikuspenaren egunean eskuragarri egon dadin.

Matxurarik gertatuz gero, BBUPk abisua emango dio enpresa lizitatzaileari, eta ikusitako gorabeheren berri emango dio, ahalik arinen konpondu dezan arazoa (bai teknikari batekin telefonoz, probaren bat egin behar izatekotan, bai teknikari batekin aurrez aurre). Enpresa lizitatzaileak gorabehera behar bezala konpontzeko beharrezkoak diren zuzenketa nahiz probak egingo ditu, eta ondoren egindakoa dokumentatuko du.

Enpresa lizitatzaileak lanaldi arruntean egingo ditu mantentze-lanak, astelehenetik ostiralera eta goizeko 08:00etatik arratsaldeko 15:00etara.

Larrialdietarako zerbitzu bat bermatu beharko da; hala, ekipoetan akats larriren bat gertatuz gero, 24-48 orduko tartean erantzun beharko dute, BBUPk gorabeheraren berri ematen duenetik zenbatuta.

Enpresa lizitatzaileak erabateko konfidentzialtasunez gordeko ditu datuak, prozesuei buruzko informazioa, sistemen gaineko dokumentazioa, etab. Horretarako, Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan (DBLO) jasotako xedapenak bete beharko ditu.


Betelurin, 2026ko otsailaren 17an

Kontratuaren arduraduna



Sin.: Estibaliz Alda Tobar

Laborategiko zuzendariordea



Sin.: Elena Aspichueta Lopez